

# Nafarrokaria

Nafarroako gehigarria / Ostirala, 1992ko azaroak 27 / II. urtea / 52. zenbakia


## Jauzi zailak

Zubian barna



BINGEN AMADOZ

Yauzkari dantza garaikide taldearen desagerpenak hutsune garrantzitsua ireki du Nafarroako dantza munduan. Garrantzitsua, eta askoren ustetan, betezina epe laburrean, horretarako baldintzak ez daudelakoan. Hala ere, dantzari franko ari dira jauzika bai Dantza Eskolan bai akademietan, hortik bizitzeko jauzi askoz ere zailagoak egin beharko dituztela jakin arren.



**E**z dakit nola ezta zer gertatu den. Horrek ez du halere gehiegi axola. Inportanteena eta aldi berean larriena da inungo abisurik eman gabe joan zarela. Gizakiaren ulermena motza izanik, zaila egiten da, egitan, bizitzeko grina amorratua erakusten zenuen hori, bapatean urtu dela sinistea.

Egiteko zenituen asmo guztiek ez dakit bidea aurkitzerik izanen duten. Horrenbeste maitatzen zuen zure bihotz zabal hori, luzera handiko zure itzala, bizitasun osoa gordetzen zuen zure gaztetasun ederra ez al dira errebelatu ilusio guztiak moztu dizkizun topaketa maltzuraren kontra?

Emankor eta alai, jendearekiko tratuan atsegin, zure etxeko, lagun eta herriarekin biziki maitekor zinen bezala nola onartu, ezagutzen zintugunon baitan hain goizter egin duzun aldentzea.

Gogoratzen zaitut orain burua txapelaz estalirik alde zaharreko kaleetan barna. Euskaltzaletasunaren adierazgarri genuen orduko garai horretan txapela eta juxtu lo egiteko kentzen genuen gainetik. Behin baino gehiagotan esanen zizuten adinekoek ia ilean gaixotasun bat zenuen, horren gaztetxo izanik beti txapelduna ibiltzeko. Nik behintzat halakoak entzun nituen behin baino gehiagotan.

Oroitzen naiz ere nolako begirada konplizea sumatzen nizun orduhan-txe. Azken finean, kezka beretsu genituen txapelaren azpian. Gure herriari eta gure herriko hizkuntzari genien maitasunak lotzen gintuen, eta ez genion elkarri ezer esan behar ados ginela jakiteko.

Urteak joan, urteak etorri, batera ta bestera ibili eta txapelak ere ez genituen lehenengo moduan erabiltzen. Denezako ezaguna zen gure euskaltzaletasun nunbait eta bestelako eginkizunetan gauzatzen zen iadantik. Buru-soildurik egonen ginake bestelaz, denbora luzez ezpaitgenion ileari behar bezala bizitzen utzi.

Txapelaren azpikoak etziren halere itzali, finkatu eta bizkortu baizik. Garai bateko kezka eta zaletasunek hortze zirauten garbi eta euskara eta Euskalherria izan genituen solasgai. Bagenituen horrezaz gain beste hainbat amodio barnean sortuak. Mintzatu zinen zure neskaz eta zure alaba txikiak eta antzekoak entzuten zenituen nire aldetik ere.

Eta oraintxe zure heriotzaren berri izan dudanean pentsatu dut lehenbizi, nolako pertsona atsegina zinen jakinda, zeinen gogorra izanen den gertutik zenituen guztientzat utzi duzun hutsuneari begiratzea eta bigarrenik esan beharra daukat beste hainbat gertaera eta egoeren aurrean bezala, ez nagoela, Alberto, zure heriotz goiztiar honekin inolaz ere konforme.

## Gure aukerak

### ERAKUSKETAK



**Jose Antonio Legorburu** pintorearen lanak ikusgai daude Tafallako Kultur Etxeko erakusketa aretoan, Kultur Patronatoak eta Nafarroako Gobernuko Hezkuntza eta Kultura sailak antolatutik. Erakusketa hila- ren 29a arte izanen da zabalik.

**'Euskararen iraupena** Nafarroako gaztelan izeneko erakusketa ikus daiteke Kastejon herriko Kultur Etxean. Erakusketa honetan euskarak nafar herri erdaldunetako gaztelan utzi dituen aztarnak aurkezten dira, eta panelen bidez egin dute. Panel bakoitzean gai bat azaltzen da, eta etxea, sukaldia, ingurua eta lanak, landareak, abereak, senda belarrak, eta abarrek gaiak agertzen dira.

**Pedro Salaberri** pintorearen lanak erakusketa datorren asteartean zabalduko da Zizur Nagusiko Kultur Etxean, eta abenduaren 20 arte iraungo du. Igandean, berri- z, 'Galtzagorri Txarangaren 10 urte' izeneko erakusketa amaituko da, azkeneko egun hauetan bertan egon ondoren.

### IKASTAROKAK



**Ipar eski ikastaroak** egin daitezke Aralarren abenduaren 1etik martxoaren 28a arte, Larraungo udalak antolatutik. Ordutegia 9,30etatik 13,30etara izango da. Bi modalitate daude, 'Aste zuria' eskolakoentzat, 4.800 pezetatan, eta 'Bi asteburu' helduentzat,

### ERRAN DUTE

**Elizalde aurreko alkatearen ihar- dueran irregulartasunak daude».**

**Pedro Mari Esarte**  
Elizondoko juradua

**«Motorrak bizia jaten nau».**

**Javier Gomez**  
Pilotoa

**«Musika kontserbatoki po- brea gara gu».**

**Maximo Oloriz**  
Zuzendaria

**«Gizonezkoa banintz Jaungoikoa nintzateke, baina emakumea naiz».**

**Rosa Maria Mateo**  
Kazetaria

## Lakabe eta Gorraitz

Lakabe eta Gorraitz, Artziba- rrekoak, aspaldian hutsik gelditu ziren herriak ditugu. Azken honetan oraindik egun ganaduzaleak tarteka aritzen badira ere, Lakaben Nafarroa osoan dagoen komuna bakarra dago. Hor ere duela bost bat urte izan zen gorakada, baina urtetik urtera, gero eta jende gutxiago gelditu da. Gaur egun, soilik bi familia bizi dira urte osoz.

Zonalde guztia zaila da, eta errepidea ondoan izanda ere, ez du gizakumearen iharduera bortizki somatu. Hori dela eta, paisaia ederrak eta atseginak ikus daitezke oraindik. Ibilbidea Agoitz eta Aezkoa tarteko errepidetik ateratzen da, 8.700 kilo- metrotik, Artozki pasa eta be- rehala.

Lakarriko errekatik igotzen, 400 metrotako igoera dugu Gorraitzera, baina lehenago Lakabetik pasatuko gara. Horren gainetik Lakorri Haitza dago. Gorraitzera heldu orduko,

materialekin 6.700 pezetatan eta materialik gabe 4.800etan. Izena eman daiteke Lekunberriko Ki- rol Bulegoan.

### ANTZERKIA



**Orkestra de Señoritas'** izeneko antzezlanak eskainiko du gaur, hilak 27, Producciones Teatrales La Claque taldeak. Emanaldia Tafallako Kultur



Lakorriko amildegia antzeman- go genuen gure eskuinaldean, eta herrixka honen aurretik dena behera doa bidaia, Orotz-Bete- lura heldu arte. Merezi du bertan

ere patxadaz egoteak, herria bera eta etxe dotorengatik.

Ibilbidea arteak eta hariztien artean egingo dugu, eta ur zozoa ere ugaria da zonaldean.

Etxean izango da, arratsaldeko 8etan, bertako Kultur Patronatoak eta Nafarroako Gobernuaren Hezkuntza eta Kultura sailak antolatutik.

**'Ramon maitea'** izenburua duen lana antzeztuko du igandean, hilak 29, Teatro Rosaura taldeak, Nafarroako Antzerki Eskolaren aretoan. Saioa arratsaldeko zortzietan hasiko da, eta sarrerak 600 pezetatan salduko dituzte. Gazte txartela edukiz ge-

ro, 300 pezeta izango dira.

**'Siellas'** izeneko obra eskainiko du bihar, hilak 28, Traspasos antzerki taldeak, Berriozarko Mendialdea ikastetxearen aretoan. Emanaldia arratsaldeko 7etan hasiko da, herriko Koordinadora Kulturalak antolatu dituen Antzerkiaren IX. Jardunaldien barruan.

**'El dia no restituído'** izeneko obra eskainiko du gaur, hilak 27, Gus Marionetas taldeak, Az-

koien Kultur Etxean, arratsaldeko 8etan. Txontxongiloen emanaldi hau, helduentzat zuzendua dago, eta 'Arte eta Kultura' kanpainaren barruan kokaturik.

### BESTELAKOAK



**'Dantzaren egoera Iruñean'** gaiari buruz arituko dira gaur, hilak 27, Iruñeko dantza talde gehienetako ordezkariak, Duguna taldeak bere XLIII. urteurrena dela eta antolatu dituen ekitaldien barruan. Aste osoan egon dira hitzaldiak, eta gaurkoarekin amaitzen dira. Guztiak Euskal Dantzarien Biltzarraren aretoan izan dira, Descalzos kalean, arratsaldeko 8etan.

### MUSIKA



**Santa Cecilia Orkestrak** kontzertu bat eskainiko du bihar, azaroak 28, Zizur Nagusiko Kultur Etxean, arratsaldeko 8etan. Hilabete honetarako antolatu dituzten ekintzen artean dago, antzerkia eta erakusketekin batera. Sarrerak 200 pezeta balioko du.

**'Su ta Gar'** eta 'Los Goma' musika taldeak arituko dira gaur, azaroak 27, Tafallako La Huesera peñaren lokaletan, hau da, Kasinoan. Kontzertua gaueko 10etan hasiko da eta bertako in- tsumisoen taldeak antolatu du, abenduako epaiketetan Tafallako gazte bat epaituko baitute.

### ADI !

#### EUSKALERRIA IRRATIA FM 91.0

Larunbatetan 9etatik 10etara... Xinguli Mangulu haurrendako saioa.

#### XORROXIN IRRATIA FM 107.5

Egunero 20.00etatik 22.00etara... Karakola segi hola gazteendako saioa.

#### RNE RADIO 1 OM 835


Astean zehar 20.30etatik 22.30etara... Zuri eta Beltz Elkarrizketak, erreportaiak, musika.

#### ARALAR IRRATIA FM 106.2

Astea zehar 13.30etatik 14.00etara... Bertako bizilagun eta pertsonai ospetsuei elkarrizketak.

### ASTEKO PERTSONAIK

#### Jorge Oteiza



Eskultorea

#### Carlos Soltxaga



Espainiako ministroa

#### Javier Pomes



Ekonomia kontseilaria

**A**rtista oriotarrari Nafarroako Aurrezko domina emango diote heldu den hilaren 3an, San Francisco Xabierrekoaren egunean. Eskultoreak bere bizitzan Nafarroari eman dion lana omendu nahi izan dute aldi honetan, eta Oteizak, hasieran, bere kontrako iritzia azaldu bazuen ere, Alli lehendakariaren lanari esker onartu zuen saria. Egunotan buru belarri dabil Oteiza bere diskurtsoa prestatzen, eta bertan Nafarroako historia eta bilakaerari buruz arituko da. Diskurtso berezia izango da, dudarik gabe, berak irakurriko duen oraindik baiez- tatu ez badute ere.

**T**afallako ministro ospetsuak Aste honetan astindu gaitu berri- ro ere, pezetaren balioa % 6 jeisterakoan. Horren ondorioz, pobregoa gara aste honetatik bertatik. Soltxagak, baina, garbi utzi nahi izan zuen horrelako neurrien bidez ez genuela kon- pontzen arazoa, eta ahaleginak eskatu zituen Europaren parean aritu ahal izateko. Interesen igoera ere % 0,75koa izan zen, baina igoera hau «betirako» ez zela izango adierazi zuen Espainiako ministroak. Sindikatuak eta ugazaben konfederazioak, bitar- tean, neurri gehiago eskatu zituzten inbertsioa bultzatzeko.

**E**konomia izan da protagonista Aste honetan, eta Nafarroari dagokionez, hurrengo urteko aurrekontuei buruz dagoen ezta- baida. Juan Cruz Alli Nafarroako lehendakaria eta Gabriel Urralbururen arteko bileren atzetik talde finkoak daude, eta ezinbes- teko erreferentzia dugu bertan Javier Pomes Ekonomia kontsei- laria. Pomesek berak ere zaila ikusi zuen sozialistek ezarri nahi dituzten mugen barruan aritzea, eta gobernuak tinko dirau bere proiektua aurrera aterateko or- duan. Irizpide ekonomikoak bai- no, politikoak daude tartean, hori bistan da.

# Artisautza erakusketa heldu den astean

PATXI ULAIAR / DONAMARIA

Malerrekea eta Bortzirietako artisautza erakusketa izanen da heldu den astean Donamariako bentan, bertako produktuak bultzatu eta kanpora begira ezagutzera emateko. Abenduaren 3tik 8ra bitartean, horrela Donamariako mojen mermelada, Legasa zein Sunbillako gazta, Berako ahumatuak eta beste gauza aunitz erosi eta dastatu ahal izango dira, eta horrekin batera, inguruko artisauen lanen erakusketa ikusgai izanen da bertan. Horrekin batera, egunotan menu berezia presatuko dute bentan, dena artisauen produktuekin egina.

Idea bertan sortu zen, Elixabet Badiolak azaldu duenez. «Hemen badaude gutxi ezagutzen diren produktu asko, bertako jendeak betidanik egindakoak. Orain hasi da jende aunitz mugitzen, eta kanpoko jende asko etortzen da. Horregatik, hori probetuz, bertako lanak plazaratzea bururatu zitzaigun».

**GONBIDAPENA** Izan ere, bi  
**ARTISAU** motako arti-  
**GUZTIEI** sau daude inguruan. Batzuek fama eta izena eurenganatu daukate dagoeneko, eta egin ahala saltzen dituzte produktuak, aparteko bultzadaren beharrik gabe. Beste askok, ordea, betidanik lan egin dute etxean baina gauzak plazaratu eta saltzera ez dira ausartzen oraindik. Horiengana doa bereziki zuzenduta erakusketa hau. «Gauza izugarriak egiten dute batzuek —dio Elixabetek— eta etxeoandreen artilea, batzuren kuxkak edo besteen gaztak atera nahi ditugu. Ez dute saltzeko ohiturarik, eta ez dute behar adina estimatzen». Hori dela eta, Donamariatik gonbidapen berezia egiten diete etxean horrelako produktu edota tresnak egiten di-



tuztenei, beren gauzak plazara atera ditzaten.

Artisautza ferian, horrela, Elgorriagako Maite Martinek paratuko ditu bere burdin-lanak, Labaiengo Fernan Garciak bere argizaiolak erakutsiko ditu, Berako Ohaiak zurezko pinturak eta Legasako Iñaki Gallok kuxkak eramango dituzte, besteak beste. Bestaldean, produktu natural asko erosi eta dastatzeko aukera izango da, eta horien artean bertan egindako patxarana, Berako pateak, gazta eta mermelada izanen dira, beste hainbat gauzaren artean.

Donamariako bentan, aurretik, produktu honen erakusketa geldituko da finkaturik, arrakasta izango duen neurrian. Elixabetek azaldu duenez, «gauza horiek guztiak plazaratzeko tokia behar da, eta hau ezin hobea da. Gainera, edo gure produktuetan sinistu eta ateratzen ditugu, edo bestela...».

## Maite Martin, burdingile

P.U. / IRUÑEA

Elgorriagako Maite Martin ezagun askoa da artisauen munduan eta bere burdin lanak erruz ikus daitezke Euskak Herriko feria askotan —Errenteria, Getxo, Iruñea—. Lan honi bere senarraren bidez lotu zitzaion, berak esaten duen bezala «lehen ez bainekien mai'u bat hartzen ere».

Egun, senar-emazteak Elgorriagan duten tailerretik Euskal Herri osorako ezezik, atzerrira ere bidaltzen dituzte lanak, eta horien artean Londres, Madril edo Bartzelona aipatzen ditu Maitek.

Senarra Hondarribian aritzen itsasontzietarako burdinare-

kin, baina arlo artistikoan sartu gabe. Ondoren, esposatu eta gero, Korellara joan ziren bizitzera, baina berehala sortu zitzaion Elgorriagan burdina lantzeko tailerra paratzeko asmoa. «Garai hartan —gogoratzen du Maitek— hasi zen burdin lana berriro biztuzten, eta animatu ginen».

Beren lana mota guztietakoa da, baina beti saiatzen dira burdinari antzinako tankera ematen. Horretarako bi sutegi dituzte etxeo tailerlean, eta lanabes antzinako zein modernoak erabiltzen dituzte. «Denetarik egiten dugu hemen: balkoiak, hesiak, lehioendakoak, barruko dekorazioa, lanparak, zangoak, aulkiak, mahaia».



Donamarian mota guztietako artisauen lanak izanen dira.



Burdingintza, lan «hagitz kreatiboa», Martinen hitzetan. AITOR BAYO

Donamariako bentara gauza txikiak eramango dituzte, «gauza gehienak egin ahala saltzen baititugu», eta berak ere jendea gau-

zak ateratzera ez dela animatzen dio. «Gai honi buruz kultura gutxi dago hemen, eta batzuek ez dute beren lana estimatzen».



**KORTES**ko ikastola inauguratu zuten larunbatean Kultur Etxean, zenbait ekintzaren bidez. Egun zortzi haur eta irakasle batek osatzen dute ikastolaren taldea, eta zazpi familien ahaleginari esker sortu da duela gutxi arte amets hutsa zena. Amets handiagoa Kortesen, Aragoikoarekin mugan egoteak gauzak franko zailduko baitizkie. Nonalana ere, gogorik ez da falta.

**ARGETAS**ko udalak aho batez onartu zuen pasa den astean Alfredo Floristan geografoa seme kutun izendatzeko mozioa. Bertako semea franko ezaguna da Nafarroa osoan hezkuntza arloan eta baita ikerkuntzan ere egindako lanagatik, eta bereziki Argetas eta Bardeei buruz argitaratutako lanak direla eta. Abenduaren 26an, erabakitakoaren arabera, omenaldia egingo dio herriak.

**ERRATZU**n kanpina eraikitzeko mozioa aztertu zuen ostiraleko batzan Baztango udalak. Kanpinarena aspaldiko asmoa da harranean eta bertako alkateak duela gutxi berretsi zuen horren beharra. Erratzun burutzeko asmoa Camping Baztan izeneko elkar-tea ari da bultzatzen.



**TUTERA**ko udalak antolatu behar zuen aurtengo Udazkeneko Bira bertan behera gelditu da, lanak antzezteko lokalik ezagatik. Gaztambide antzerkiaren enpresak uko egin dio lokalak alokatzeari, eta, egun, Tuterako udala harremanetan dago lokalak erosteko. Hori lortu arte ez da antzerki emanaldirik izango, eta horren hutsunea betetzeko Gabonetan kontzertu batzuk antolatuko dira Erriberako hiriburuan.

**BERTIZARANA**ko udaleko idazkariak kereila aurkeztu du udal osoaren aurka, aspaldidanik datorren arazo baten kariaz. Ana Frauca Sagastibeltza idazkariaren eta udalaren arteko gatazkarren historia 1990an hasi zen, udalak titular izendatu zuenean. Hurrengo udalak hori ukatu egin zuen, eta orduan hasi zen eztabaida, errkurto eta salaketa prozesu luzea. Azken tanta orain izan da, eta idazkariak gogor salatu du udala, hala alkatea nola zinegotziak. Bere ustetan, salaketan jasotzen denaren arabera, udalak trabak paratu zizkion bere lanari, eta zenbait soldata kobratu ez izana ere azaltzen da bertan.



## Gazteendako Zokoa

## Atalarra

*Burhinus oedicnemus*  
Lurralde zabalak gus-  
toko  
Lurrean hegan baino  
Hegoaldean ugariagoa



## Trazagaiztokoa


Trazagaiztoko eta makurra, atalarraren kantua frankotan aditzen da hegoaldean arratsaldetan edo euria ari duenean. Lehendabizikoetan errute garaian dabilenean, eta bigarreanean, urria eta azaroa aldera, migrazio garaian ale batzuk galduta dabilzanean.

Hanka luzeak ditu, eta azkar mugitzen da lurrean. Kolore nabarrak ditu gorputzan, landare eta harrien artean ezkutatu ahal izatekoak. Mokoak txikiak eta sendoa da, eta horia, begiak bezala.

Larre zabaletan bizi da, zuhaitz gabekoetan, eta baita zingiren inguruetan ere, baina beti begetaziorik gabe. Ihes egiterakoan korrika egiten du, eta segituan ezkututzen da. Behar izanez gero ere, hegan egiten du, altura txikian, eta hegalean mugimendu lasai baten bidez.

Gustokoak ditu taldeak, eta bertan oihuak eta kantuak etengabekoak dira, bereziki gauz eta arratsetan. Barazkilo, insektu eta, batzutan, narrasti eta ugaztun txikiak jaten ditu, eta lurrean erruten du, kabirik gabe.

Oso zabaldua dago Mediterraneo inguruan, Nafarroakoek ez dute migrazioz egiten. Hala ere, ez dira oso ugariak gure lurraldean, eta Kodes, Jurramendi, Errienega eta Alaizko mendizerratik behera aurki daiteke.



## Arkakusoen bila

## AINHOA MAINZ

Sendy eta Mery hogeituro urteko neska atseginak ziren. Unibertitatean ikasten ari ziren eta animal bitxiak aztertzen zituzten laborategian. Batzutan bidai txikiak egiten zituzten beste animalien bila, beti mendira, hondartzara, ibaira... leku horietara joaten ziren.

Egun batean arkakusoak aztertzen ari zirelarik 'arkakuso parlantis-ak' aztertu zituzten. Bai, badakit hori gezur bat dela edo hau zentzurik gabeko istoria izango dela pentsatuko duzuela baina hau egia da. Bai, egia da, arkakuso batzuek hitzegiten dute baino Egiptoko piramideetan bizi dira. Egiptiarren garaian piramideetan asko aspertzen ziren eta orduan arkakusoei hitzegiten zieten eta hauek, noski, azkenean hitzegiten ikasten zuten.

Baina, hala ere, hilko zirela pentsatuko duzu, baina egia esan, batzuk hil dira baina beste batzuek oraindik bizirik irauten dute. Bakarrak bi edo hiru mundu guztian. Zergatik? galdetuko duzu, baina berdin da, lagun arkakusoak milaka eta milaka urte bizi dira.

Orduan bidai bat prestatu zuten arkakusoen bila joateko eta Sendy

eta Meryri egokitu zitzaion. Oso pozik jarri ziren baina ez zuten ezagutzen piramideen arriskua, zeren eta somatu ezinezko trankak baitaude bertan.

Eguna iritsi zen, joateko eguna, noski. Abuztuaren 15 zen eta izugarriko beroa zegoen. Sendy eta Meryri Egiptora joateko gauza guztiak prestatu zituzten.

Hemendik goizean atera ziren eta hurrengo eguneko arratsaldean iritsi ziren hara. Oso nekatuak zeuden, eta aireportutik taxi bat hartu eta hotelera joan ziren. Hoteletan jarri eta lo egiten zuten.

Hurrengo egunean, indarrak berreskuratuta, basamortura joan ziren. Eskuetan mapa bat zutelarik piramideetan sartu ziren. Atea bultzatu eta barnean sartu ziren. Oso handia izan arren dena begiratu zuten eta arkakusoen arrastorik ez. Atera eta, gaua zenez, hotelera itzuli ziren.

Hurrengo goizean berriro basamortura joan ziren. Piramidera joan eta berriro begiratu zuten ongi. Oso nekatuta zeuden eta Sendy atsedean hartzeko banku batean eseri zen:

—Ezin dut gehiago. Hamar buelta gutxienez eman diogu piramide honi eta arkakusoen arras-

torik ez dago—esan zuen Sendyk.

—Bai, badakit, baina ezin gara arkakusorik gabe unibertsitatera itzuli—zioen Meryk.

Mery ere nekatuak zeogen eta lurrean eseri zen. Eserita zegoelarik harria mugitzen zela nabari zuen. Orduan laister altxatu zen. Sendyri esan zion eta biek harria mugitu zuten, zulo handia baitzen. Zeramatzen poxpoluekin jeisteko eskailera batzuk ikusi zituzten.

—Jeitsiko gara?—galdetu zuen Sendyk—niri beldurra ematen dit.

—Lehendabiziz ea norbait dagoen galdetuko dugu—esan zuen—Nor dago hor? Norbait hor dago?

—Bai—esan zuen ahots batek.

—Eta nor zara zu?

—Lumiki naiz eta geratzen den azkenengo arkakuso hitzuna naiz.

Arkakusoa atera zen eta Sendy eta Meryk beren istoria kontatu zitoten. Orduan arkakusoa ados zegoenez beraiekin joan zen. Hirira heltzean zer gertatu zitzaion ez dakit.

Hau idazten duena, ni, Natu izeneko armiarma naiz. Piramide osoan gelditzen den azken armiarma idazlea.



## BASAJAUN

Joan zen astean kutsadurak umeen osasunean duen eragina aztertu genuen, eta bereziki osasunak duen garrantzia kutsaduraren eragin kaltegarriak nabarmentzeko orduan. Hain zuzen ere, etxe barruan egin diren azterketa gehienek adierazten dutenaren arabera, produktu kaltegarri hauek barruko aizean aurkitu daitezke frankotan.

Altzariak dira kutsadura sortzailetako batzuk. Oso era 'inozoan', gure logeletan altzari hauek aire botatzen dute, gasa, hobeki esanda, bai pinturek dituzten osagaietatik nola egur landu eta tratatzeko erabiltzen diren beste material batzuetatik.

Oso araudi bitxiak aurki ditza-kegu honi buruz Europa osoan, eta esan daiteke Alemaniako serioena eta zuzenena dela, ez bairik gabe. Formaldehido izeneko materialak, egurren tratamenduan oso erabilia, arnasteko organoetan minbizia sor dezake, eta milioi batean 0,1eko kontzentrazioa dago baimenduta haurrak diren tokietan.

Oso posible da airean dauden material hauek buruko minak, kontzentrazio falta, eta alergia askoren sortzaileak izatea. Hori dela eta, soluziobiderik hobereana egongelak ongi eta zuzen egurastea da, batez ere gauz: bi ordu ohera sartu baino lehen. Uda eta garai epeletan, leihoa gau osoan zehar irekita egotea da hobereana. Halaber, dekoratzeko tresnekin kimika leunekoak erabili behar dira, eta baita pintura naturalak ere, eta ahalik eta gehien saihestu behar da egur prentsatu. Merkeena, batzuetan, osasunarentzat garestiegia izan daiteke.


## Jenero Xumekoak

## Titulurik gabekoa

**A**intzina xirulak gizakien zangoetako hezurrez eginak omen ziren, eta horretarako zangarrak hobetsiak. Amerikatan zenbait tributan etsaien larru eta hezurrez eginiko xirula eta dandolinekin garaipena ospatu eta hildakoak ohoratzen dira. Beraz, ez da bat ere surrealista Heriotzak gure zangoetako saxofoiarekin Agur Jauna joko duela gure hiletan esatea.

JEREMIAS ERRO

## KAZKARROAN

HITZ  
GURUTZATUAK

EZKER-ESKUI: 1.- Biloa. (Infi.) Luzatu. 2.- Bizkortasun. 3.- Bihia. Lelo. 4.- Errepikatuz, begien distira. Harena. 5.- Tona. Modua. Kontsonantea. 6.- Endrike, ingelesez. Joaki da. 7.- Izan. Erreka. 8.- Iparraldean, haizezko ekaitzak. 9.- Trebe. Giro.

GOITIK-BEHERA: 1.- Gizon izena. Animalia basati bat otzandu edo menderatu. 2.- Lorategia. 3.- Deus. Zeini. 4.- Gipuzkoako herria. Gipuzkoako mendia. 5.- Kontsonantea. Berri hitzaren hizkiak. Mila. 6.- Erregetia. Gauerokoa. 7.- Uso arra. Salvador .... Figueraseko pintore handia. 8.- Zuberoako. 9.- Artzain eta arrantzaleen janari kopurua. Libre.

N-53

## Zaharrak berri

Hobe da behin gorri, ezen ez beti hori.

Hobe da behin zorrotz egin, beti erdizka ibili baino.

Baztan

—Hi zegatik hago hain potolo?

—Ez eztabaidatzeagatik.

—Ez duk horregatik ba izango...

—Beno, ba, ez duk izango.

## Bizi Bizian

**E**uropa osoa, XVI. mendean, intolerantzia eta erlijioari buruzko gatazketan murgilduta zegoenean, Nafarroak intelektual eta hu-

manisten mirespen eta interesa bereganatu zuen, Italiarekin batera. Margarita erreginari esker, Erresumak Pirinioez bestaldean eutsi zien lurraldeak topagune

garrantzitsu izan ziren pentsamendu berriak, eta aste honetan zehar burutu dira Iruñean emakume garrantzitsu eta aitzindari honi buruzko jardunaldiak.

# Lehen feminista

PATXI ULAIAR / IRUÑEA

Margarita Nafarroakoa 1492an jaio zen Anguleman (Frantzia), eta jaiotzetik hezkuntza oso berezia jaso zuen, neoplatonismoan oinarriturik. Italiara, latina, grekera, espainiera eta hebraiera ikasi zituen eta 1509an Carlos Alençonekoarekin ezkondu zen. Bere anaia Francisco I Frantziako errege izendatu zutenean, artista eta intelektualez osaturiko giroa sortu zuen Margaritak Frantziako gortean, eta bere fama Europa osoan zehar zabaldu zen.

1525ean sortu zen Nafarroarekin bere harremana. Urte hartan izan zen Paviako gatazka eta bertan Enrique II Nafarroakoa, Margaritaren senarra eta Francisco I Frantziako erregea batera aritu ziren. Orduan ezagutu zuen Margaritak Nafarroako erregea. Bere senarra urte berean hil zen —Paviako gatazkatik aldegin eta gero—, eta bi urte geroago —1527an— harekin ezkondu zen.

Frantzian egindakoa Nafarroako gortean berriro egin nahi izan zuen orduan Margaritak, eta Paben eta Eracen hiriburua zuen Nafarroa hura humanismoaren zentrorik garrantzitsuenetakoa izan zen Europan. William Shakespeare idazle ingelesak berak Nafarroak «munduko mirespina» jasoko zuela esan zuen orduan.

**NAFARROA TOPAGUNE HUMANISTA** Horrela, Nafarroako Erresumak Pirinioez bestaldean eutsi zien lurraldeak humanista guztien topagune bihurtu ziren eta bertan esperientzia aitzindariak bultzatu ziren, beti Margaritaren bultzadari esker. Horrela, akademia neopla-

toniko franko zabaldu ziren, eta emakumeak izan ziren gortea, hezkuntza eta kulturaren jabeak. Amerikarrek, horregatik, «Aro Modernoko lehen emakumetzat» hartu zuten, eta lehen feminista ere izendatu dute zenbait historialarik. Jon Oria emakume honetan adituak azaltzen duenez, garai hartako emakume handienak izendatu behar izanez gero,

hiru nafar aterako liriteke «nahitanahiez»: Margarita Nafarroakoa, Juana Albretekoa eta Margarita Valoiskoa.

Gorte honetara heldu ziren Lefevre eta Marot bezalako intelektualak, eta Juan Calvino ere bertan izan zen garai batean. Tolerantzia giro honetan kanpoko eraso eta presioak etorri ziren, bereziki Erromatik eta Espai-

niako gortetik eta erreginaren eragina apalduz joan zen. Horrekin batera, garai hartan Frantzian istilu askotxo izan ziren erlijio kontuekin, eta azkenean bai Frantziako erregearekin, bai Espainiako kortearekin istilu askotxo izan ondoren, Odosko gaztelura erretiratu zen Margarita, eta 1549an bertan hil.

Bere garaiko egiturekin haus-

**F**rantzian egindakoa Nafarroan errepikatu nahi izan zuen orduan Margaritak, eta Paben hiriburua zuen erresuma hura Europako zentrorik garrantzitsuenetakoa izan zen. Shakespearek berak esan zuenez, Nafarroak «munduko mirespina» jasoko zuen.

teko egin zituen ahaleginak eta lortu zuen eragin humanistikoaz gain, Nafarroan bizi zen garaian liburu batzuk idatzi zituen, eragin handikoak denak. Horien artean, azpimarratzekoa da 'Heptameron', 1558an argitaratua. Bertan, eta Boccaciok 'Decameron' lanean botatakoari erantzun gisa, barre egiten du gizonezkoen lepotik, eta Berpizkunde garaiko lanik garrantzitsuenak da.

Oria doktoreak erreibindikatzen du liburua Nafarroarentzat. «Liburu hau ostu egin digute nafarroi, bertan Nafarroari buruz sinbologia aunitz baitago, eta ez da kasualitate hutsa». Iruñea, Tafalla, Erriberri eta beste aipamen batzuk agertzen dira bertan, baina Oria izan da bere sinboloak aztertu dituen lehendabizikoa. «Alfa eta omega agertzen dira, eta erdian Margaritaren 'M-a'. 'M-ren' ondoren arrosa, hau da, fideltasunaren sinbologia, nafarrek foru eta erregeei zieten fidelotasuna, hain zuzen ere. Sinbologia hutsa dirudi, baina askoz ere garrantzitsuagoa da, eta orain aztertzen ari gara guztia».



## Nafarroa, gailurretik iluntasunera

P.U. / IRUÑEA

Jon Oria Londreseko Unibertsitatean doktoreak Margarita Nafarroakoren inguruan izan zen giro humanistikoa izan zuen aztergai asteartean. Orain dela gutxi bukatu berri du lizentziaren bere tesia emakume honi buruz, eta Nafarroarekin zuen harremana eta eraginaren aldeko defenditzaile sutsua da. «Bera izan zen garai hartako humanismoaren gailurra —azaldu du— eta arazoa da gureganatzen dugun

ala ez, nafartzat hartzen dugun ala ez».

Mugimendu honek izugarriko oposizioa sortu zuen garai hartan Europa osoan, eta Frantzia, Espainia eta Vatikanoa gogor saiatu ziren bere kontra. Oriaren ustetan, hori da Nafarroak inbasioaren ondotik izan zuen beherakadaren sorrera. «Nafarroa eta Italia ziren garai hartako humanismoaren gordelekuak, eta bien kontra gogor saiatu ziren hiru estatu nagusiak. Ingalaterra ere anglikanismoa-

rekin aritu zen orduan, eta bere kontra Armada Garaitezina zertizana bidali zuten. Nafarroaren kontra Fernando Katolikoa, Albako dukea eta Cisneros kardinala bidali zituzten».

Horren ondotik, kultur arloan Europako lurralderik aurreratuenetakoa ilunpean bizi izan zen ia mende oso bat. «Hemen ez zen deus ateratu —dio Oriak—, baina deus ez! Mendearen bukaera arte». «Dena kendu zigten orduan, apropos, berriro burua altxa ez genezan, eta lortu dute

nonbait. Jendeak horrelako amnesia dauka, eta gure historia berriro berreskuratu beharra dago».

Halaber, doktoreak, luze gabe gai honi buruzko liburua argitaratuko duenak, garai hartako mugimendua izendatzeko 'navarismo' hitza proposatzen du. «Ingalaterran antzeko giroa bizi zen, eta haiek 'anglikanismo' hitza asmatu zuten lau mende beranduago. Guk ere asmatu beharra daukagu, orduko garaian garrantzia ez zelako txikiagoa izan».



Jon Oria.

JOXE LACALLE

# Txema Aranaz

Argitaratzailea

**A**steburu honetan zabalduko dira urtero Gerediaga elkar-teak antolatzen duen Durangoko Azokaren ateak. Euskal liburu eta diskoen topaleku garrantzitsuenak, bertan izango dira Nafarroako

hiru argitaletxeak: Pamiela, Txalaparta eta Igela. Lehendabizikoa izango da nobedade gehien aurkeztuko duena, eta Txema Aranaz bere partaideak Azoka eta argitaletxeaz zenbait iritzi plazaratu digu.

## «Dugun izakerari eutsi nahi diogu»

ALBERTO BARANDIARAN / IRUNEA

**EGUNKARIA.**— Zer da Durangoko Azoka Pamielarendako?

**TXEMA ARANAZ.**— Egunero honoa zapaltzen duen gurea bezalako argitaletxe txikia, horrelako muntaiek gutxi astintzen dute. Salmentei dagokienez, beraz, gutxi. Azoka askoz garrantzitsuagoa da argitaletxe handientzat, topaleku eta erakustoki funtsezkoa delako. Hori bai, Durango oso garrantzitsua izan da guretzat, jendearen aurrean azaltzeko orduan. Horren bidez, jende askok ezagutu gaitu, eta hori izan da beti gure bozgailurik handiena.

**EGUNKARIA.**— Beti honoa zapaltzen zabiltzate dirudi. Inoiz aterako al zarete hortik, argitaletxe handi bilakatuko zarete?

**ARANAZ.**— Guk oinarri bat dugu: gauzak hobeki baldin badoaz, ekonomi arloan, ongi etorriak. Hala balitz, jakina, denontzat hobe. Jende gehiago eta lotuago izango genuke, eta idazle guztiei bere garaian ordainduko genieke. Baina argitaletxearen ideia gauden lekuan uztea da: 18-24 liburu bitarte urtero. Hortik pasa gabe.

**EGUNKARIA.**— Arrazoi zehatz batengatik?

**ARANAZ.**— Bai, jakina. Edozein negozio mota zabaltzeko asmoa baldin baduzu, gauzak nahasten eta korapilatzen hasten dira. Eta dena diruaren bidez zurrizten denez, azkenean arrazoirik gabeko gauzak egingo genituzke. Gainera, liburu gutxiago egiterakoan, idazlearekin harremana, zuzenketa guztiak, testuen bilaketa, askoz hobeki egin daiteke. Horregatik nahiago dugu prozesu luze honetan orduak sartu, liburu asko atera baino. Horretaz gain, jakina, bizitza mota ere oso bestelakoa da, eta nik nahiago dut


mendirra joan hoge liburuarekin...

**EGUNKARIA.**— Pamielaren inguruan idazle eta jende ezagun asko dabil, sailak prestatzen, aldizkariak egiten...

**ARANAZ.**— Argitaletxea ondorio berezi bat da, bilatu ez genuen ondorioa, izan ere. Dena Haulan liburudendan hasi zen. Han jende asko elkartzan ginen, literaturaz aritzen ginen, eta hor sortu zen aldizkaria. Ondoren, Pablo Antofianaren liburu bat atera genuen, omenaldi txiki baten antzera. Hori ongi atera zen, eta ia nahi gabe, konturatu gabe, mundu honetan sartu ginen. Ez zen proiektu bat izan, aurretik pentsatutako zerbait. Argitaletxea jende askoren arteko harremanetik sortu zen, eta oraindik gaur egun jende guzti horrek eusten dio. Sostengu eta partaidetza hori gabe, ezinezkoa litzateke.

**EGUNKARIA.**— Azokarako atera behar duzuen liburuen zerrenda ez da nafar egilerik.

**ARANAZ.**— Beno, Azokarako ez, baina Eduardo Gil Berak egin duen itzulpen bat, eta 'Fisikaz honatago' eta 'O tempora! O mores!' liburuen erdarazko beste argitalpena prestatzen ari gara. Aingeru Epaltzaren 'Ur uherrak' eta Jean Baptiste Etxarrenen 'Zubi madarikatuak' ere argitaratuko dugu luze gabe, eta baita Iri-gairen lan bat ere... Hala ere, onartu behar da garai batean baztertu samarturik utzi genuela nafar egilerentzat espreski eginak zeuden bildumak. Hori baztertu genuen arrazoi batengatik. Pertsona batek zerbait idatzi nahi baldin badu, ondoan ikasteko aukera izan behar du, iritziak aditu behar ditu, eta bere lanak nonbait argitaratu behar dituzte. Guzti horiek liburu argitarara eman aurretik egin beharreko gauzak dira, baina inork ez die



Argitaletxearen inguruan dagoen taldea azpimarratu du Aranazek. JOXE

egun jaramonik egiten. 'Ibiltari' gure bilduma horretarako zegoen, baina zenbakiak ateratzegatik ez genuen edozein gauza sartu nahi.

Nere ustez, gauza asko plazaratzeak ez du batere laguntzen. Liburu bat ez bada argitaratzeko, ez da argitaratzen, eta kitto. Ez da deus gertatzen. Komeniga-

rria da irizpideak izatea, eta lan zuzena egitea.

**EGUNKARIA.**— Aipatu dituzun egileak ia betikoak dira: Gil Bera, Epaltza, Iri-garai...

**ARANAZ.**— Bai, baina kontutan hartu behar da orain dela hiru urte arte, argitaratzen genituen liburuen % 80 egilearen lehen liburua zirela. Orduan, horri errepa-

**L**iburu asko plazaratzeak ez du laguntzen. Gauza bat ez bada argitaratzeko, ez da argitaratzen, eta kitto. Ez da deus gertatzen. Komenigarria da iritziak izatea, eta zuzen jokatzeko.

ratu genion. Orain, orduan argitaratutako zenbait gauza ez genuke argitaratuko. Jakina, bakoitzak bere irizpideak dauzka...

**EGUNKARIA.**— Eta zeintzu dira Pamielaren irizpideak?

**ARANAZ.**— Berdin zaizkigu joera guztiak: poesia, literatura, edota gastronomia. Euskaraz orain arte nahiko nahaste-borraste handia izan dugu, eta orain hasi gara gauzak behar bezala lotzen. Erdaraz bai, izan dira irizpide zuzen eta garbiak, baina antzak, eta hori izan da, agian, Pamielaren poesia sailak izan duen erakargarritasuna. Joera guztiak sartu direla.

**EGUNKARIA.**— Atxagaren 'Behi euskaldun baten memoriak' liburuarekin Pamielak urrezko esnearen behia aurkitu du?

**ARANAZ.**— Guretzat erronka handia zen liburuaren errentagarria egitea. Edozein argitaletxe handiak egin zezakeen, eta hori zen gure apustua. Horregatik, garrantzitsua izan da erantzun ona ikustea. Era berean, laguntza handia da guretzat ekonomi alde-tik, eta saila eta argitaletxea bera ezagutzera ematen duelako. Horrelako behi gehiago etorriko ahal dira! Baina, hala ere, argitaletxearen nortasuna eta tamaina ez du aldatuko.

NOSKI JATOR

ZVLDI ERDA

TAKONERAKO ERASOTUEI, BIHOTZEEZ ETA ARKATZEEZ



ZE8